

**AKORDIOA, IV. SAILKAPEN TALDEKO (Kategoria profesionala: Teknikari laguntzailea, Espezialitatea: Osasuna/Animaliategia) LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK HAUTATZEKO PROZESUAREN EPAIMAHAIAREN DEIALDI HORI 2018ko AZAROAREN 2ko ERREKTOREAREN ERABAKIAREN BIDEZ EGIN ZEN.**

---

Epaimahai honek hainbat idatzi jaso ditu, argitaratutako galdera zerrendetako hainbat galderaren inguruko akatsen, zalantzen eta desadostasunen berri ematen dutenak.

Era berean, azterketaren nondik norakoei buruzko galderak jaso ditu.

Horiek aztertu ondoren, eta Deialdiaren Oinarri Orokorren zortzigarren eta hamabigarren puntuak eta Oinarri Espezifikoen hirugarren puntuak (biak ere UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan jasotakoak) aurreikusitakoa kontuan hartuta, IV. sailkapen taldeko (Kategoria profesionala: Teknikari laguntzailea, Espezialitatea: Osasuna/Animaliategia) lan kontratadun langile finkoak hartzeko hautapen prozesuaren epaimahaiak honako hau erabaki du:

**LEHENA.-** Galderen zerrendan hautemandako akats formalak (hala nola tipografia, osaketa, numerazioa, letra formatua, azpiindizeak) zuzentzea, eranskinaren arabera.

**BIGARRENA.-** Jakitera ematea hautagai bakoitzak azterketa egiteko unean aukeratu ahal izango duela bai azterketa egiteko hizkuntza, bai egin beharreko ariketa praktikoa.

**HIRUGARRENA.-** Oinarri espezifikoen 3.1.2 puntuak adierazitako ariketa praktikoa egiteari begira, epaimahaiak gutxienez proposatuko dituen 5 kasu praktikokoetako bat ebaztea hautatzen duten pertsonak honako material eta dokumentazio hau erabili ahal izango dute: koloretako boligrafoak.

Leioa, 2019ko urriaren 3a

Epaimahaiko idazkaria

  
Mª José González Kareaga

## I. ERANSKINA

### IV. TALDEKO AKATS FORMALAK ZUZENTZEA

#### ZATI OROKORRA

77. galdera: "CAV" jartzen duen lekuan, jarri "Comunidad Autónoma del País Vasco".

#### ZATI ESPEZIFIKOA

9. galdera: "peli/osos" jartzen duen lekua, jarri "peligrosos".

11. galdera: "NH<sub>4</sub>" jartzen duen lekuan, jarri "NH<sub>4</sub>".

73., 74. eta 87. galderak: "mi" jartzen duen lekuan, jarri "ml".

90,94,95,96,97,98,99,143 galderak: erantzunetako termino zientifikoak letra etzanez jarri behar dira.

140. galdera: ezabatu e) erantzuna.

162. galdera: bereizi c) erantzuna d) erantzunetik.

188. galdera: "forma" jartzen duen lekuan, jarri "toma".

221. galdera: "art.15.d" jartzen duen lekuan, jarri "art.14.2.d".

222. galdera: "art.14.1.a" jartzen duen lekuan, jarri "art.14.1.d".

271. galdera: "naoh" jartzen duen lekuan, jarri "NaOH".

359. galdera: ezabatu "D)".